BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

5222

EBAZPENA, 2014ko urriaren 27koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenean eragina duten Instalazioen Erregistroko inskripzio batzuk ezeztatzeko dena.

Kontuan izanik: jarduera jakin batzuetako disolbatzaileen erabileraren ondoriozko konposatu organiko hegazkorren isuriak mugatzeari buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua, zeinak gureganatzen baitu 199ko martxoaren 11ko 1999/13/CE Zuzentaraua; eta helburutzat honako hau du: ingurumenean eta pertsonen osasunean, konposatu organiko hegazkorren isuriek dituzten eragin zuzenak edo zeharkakoak saihestea, edo, bestela, gutxitzea.

Kontuan izanik: urtarrilaren 8ko 1/2013 Dekretuak, konposatu organiko hegazkorrak igortzen dituzten instalazioei buruzkoak, honako helburu hau du: Euskal Autonomia Erkidegorako administrazio-interbentzioaren araubidea garatzea, zeina urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan baitago aurreikusia.

Kontuan izanik: atmosferara egiten diren konposatu organiko hegazkorrezko igorpenen gaineko kontrola eta segimendu egiteko, urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuko instalazioek konplitu behar dituzten betekizunak, dekretu honetan ezartzen direnak.

Kontuan izanik: arau honen aplikazio-eremuko instalazioen pertsona titularrek honako dokumentazio hau bidali beharko dute ingurumen-organora: instalazioan, disolbatzaileei dagokienez urteko egiten diren kontsumo eta kudeaketari buruzkoa, aurreko urte naturalari doazkion datuekin.

Kontuan izanik: ingurumen-organoan ez dago jasoa ezen jarduera-titular batzuek arauan eskatzen den informazioa aurkeztu zutela; eta 2014ko apirilaren 15eko datarekin, titular horiei aipatu dokumentazioa bidaltzeko eskatu zitzaien.

Kontuan izanik: komunikazio hori jakinarazteko ahaleginetan huts egin zen; eta eranskinean zehaztu jarduerak kokaturik daudeneko udalerrietako udalei zera eskatu zitzaien: jarduera martxan dagonen ala ez informatzeko. Kontsulta horietatik ondorioztatu da jarduera horiek zarratuta daudela.

Kontsideraturik: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenean eragina duten Instalazioen Erregistroko atal egokian inskribaturik daude gorago zehaztu araudi peko jarduerak. Irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan sortu zen erregistro hori. Dekretu horren bitartez, bestalde, ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzen da, eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroaren sorrera eta erregulazioa finkatzen dira. Eta organo honek duen informazioaren arabera, jarduera haiek jada ez dira martxan; beraz, egoki da aipatu inskripzioak ezeztatzea.

Kontsideraturik: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, ebazpen hau emateko, organo honek duen eskumena.

Ikusirik: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko dena; 1/2013 Dekretua, urtarrilaren 8koa, konposatu organiko hegazkorrak igortzen dituzten instalazioei buruzkoa; 183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten

jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena; 19672013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; eta 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; bai eta gainerako arau aplikagarriak ere.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenean eragina duten Instalazioen Erregistroan, eranskinean seinalatutako jardueren inskripzioa ezeztatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumeneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 27a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA.

ERANSKINA

Konposatu organiko hegazkorren isuriak egiten dituzten instalazioen EAEko Erregistroan euren inskripzioa ezezatzen zaien enpresak.

Empresa	Helbidea	Nima
Tintorería Arin	Maria de Lezo 8-bajo – 20100 Errenteria	2000077599
Tintorería Abando	Centro Comercial Vialia – Plaza Circular 2, Edificio Renfe, 48008 Bilbao	4800029520
Miren Apraiz Ormaza – Tintorería Garbiketa	Askatasun bidea 5, 48370 Bermeo	4800030311
Tintorería Vit-Sec Vitoria	Arana 39, 01002 Vitoria-Gasteiz	0100029196
BK Sistemas de Desarrollo del Mueble	Amutaldea 5-7, 20280 Hondarribia	2000022097
Fontanillo Manufacturas, S.A.	Polígono Bidebitarte. Donosti ibilbidea 26, 20115 Arrigorriaga	2000000885
Prado Transformados Metálicos	Bermeo bidea 3, 48100 Mungia	4800084077
Gangoiti, S.L.	Derio bidea 57 – Polígono Industrial Zabalondo	4800007831
Tintorería Aranzazu Soto Gimeno	Ortuño de Alango 26, 48920 Portugalete	
Idoia Arbide Macicior y otra, C.B.	Lekaenea 14, 20301 Irún	2000077205
Tintorería María Jesús Lopez Garate	Avenida Lehendakari Aguirre 167, Lonja 2-D	4800029999